II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Onestea Amurrioko emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko ikerketa beka bat emateko oinarri arautzaileak. 2019ko deialdia

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko urtarrilaren 17ko erabaki bidez, onespena eman zien Amurrioko emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko beka bat emateko oinarri arautzaileei, honako ezaugarriekin.

1. Xedea

Hona ikerketaren arloa: emakumeen memoria historikoa berreskuratzea.

2. Ikerketaren iraupena

Beka 6 hilabeterako izango da gehienez, horren esleipena argitaratu ondorengo egunetik aurrera, baina luzapen bat egon daiteke, epaimahaiak hala xedatzen badu.

3. Pertsona edo erakunde onuradunak

Beka norbanakoek eska dezakete. Beka eskuratu ahal izateko, nahitaezkoa da ondorengo tituluetako bat izatea: lizentzia, diploma edo erdi-mailako LHko ikasketak. Lan taldeak izanez gero, gutxienez lantaldeko batek bete behar du aipatutako eskakizuna. Proiektua edo memoria bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu behar da. Horrez gain, laburpen bat aurkeztu beharko da bi hizkuntzetan, sarrera gisa, eta ondorioak azpimarratuko ditu.

4. Eskaera egiteko lekua

Eskaera eta eskatzen diren agiriak Amurrioko Udaleko erregistroan aurkeztuko dira nahiz administrazio prozeduraren legean ezarritako moduetako batean.

5. Eskaera aurkezteko epea

Agiriak 15 egun balioduneko epearen barruan aurkeztu beharko dira, deialdiaren ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Bekaren pertsona edo talde onuraduna izateko proposatua izanez gero, beka hori emateko ebazpena eman baino lehen, curriculum vitae-an zehaztutako prestakuntza eta esperientzia egiaztatu beharko dira, eskatutako agiriak aurkeztuta.

Amurrioko Udaleko organoren batek lehendik badu eskatzen diren agirietako bat, beka eskatzaileak 39/2015 Legeak 53.1.d, 28.2 eta 28.3 artikuluetan xedatzen duenari heldu ahal izango dio, baldin eta agiri horiek noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazten badu edo, hala dagokionean, noiz jaulki ziren. Hori guztia, kasuan kasuko prozedura amaitu zenetik ez denean bost urte baino gehiago igaro.

Eskaera orrian edo horrekin batera aurkeztu behar diren agirietan akatsen bat egonez gero edo behar bezala beteta ez badaude, interesdunei hamar egun emango zaizkie antzeman diren akatsak zuzentzeko (39/2015 Legearen 68.1 art.). Epe hori amaitu eta horiek zuzendu ez badira, eskaerari uko egin diotela ulertuko da, eta horretarako, ebazpena emango da 39/2015 Legeak 93. eta 94. artikuluetan ezarri duen moduan.

6. Eskatzen den dokumentazioa

— Eskaera orria.

— Curriculum vitae-a, egindako azterlanak eta ikerketak zehaztuta. Taldea izanez gero, kide guztiek egindakoak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Ikerketa proiektuaren memoriaren proposamena, honako datuak adierazita:

• Ikerketaren eremua.

• Ikerketa lanaren justifikazioa, aurrekariak eta gaiaren egungo egoera.

• Ikerketaren helburuak.

• Metodologia.

• Lanaren plana eta kronograma.

• Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.

— Proiektuaren memoria bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egingo da eta ikerketaren laburpena elebitan.

— Amurrioko Udaleko Berdintasun Arloak informazio gehiago eskatu ahal izango die beka eskatzaileei puntu horiei buruz.

— Pertsona bat taldearen ordezkari izendatu beharko da, onuraduna den neurrian, taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena. Ez da beharrezkoa eskakizun hau eskaeran sartzea, baina bekaren pertsona edo talde onuraduna izateko proposatua izan bada, beka emateko ebazpena eman aurretik bete behar da.

— Esleipena ebatzi ondoren, bekaren pertsona edo talde onuradunak curriculum vitae-an egiaztatutako titulu akademikoaren kopia aurkeztu behar du.

7. Bekaren zenbatekoa

Deialdi honetako bekaren zuzkidura 3.000 euro da. Gastua 23002.480 partidatik egingo da.

Zenbateko horretan egoki diren atxikipenak egingo dira, PFEZren araudian ezarritakoari jarraituz, bai eta egoki diren gainerako zergak ere.

Ikerketak sor ditzakeen gastu guztiak onuradunaren edo onuradunen kontura izango dira.

8. Ordaintzeko era

Bekaren sortzapena honela ordainduko da:

— Beka onartzen denean, guztirakoaren ehuneko 40.

— Beka eman eta hiru hilabetera, aurrerapenen memoria txiki bat aurkeztuko da, eta epaimahaiak aztertu eta oniritzia eman ondoren, bekaren ehuneko 20 ordainduko da.

— Gainerako ehuneko 40a ikerketa aurkeztu eta epaimahaiak bekaren helburua bete dela adierazten duenean ordainduko da.

9. Esleipen prozedura

Epaimahaiak proiektuak aztertu eta hautatuko ditu, eta honakoez osatuta egongo da: Berdintasun arloko zinegotzia, Berdintasun teknikari bat, Amurrioko talde feministaren ordezkari bat eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bat, gai horretan diharduena.

Balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Proposatutako proiektuaren interesa eta zuzentasuna: 30 puntu.

— Proiektuaren argitasuna eta bideragarritasuna, metodologia eta kronograma barne: gehienez, 30 puntu.

— Eskatzaileen curriculuma eta euskararen ezagutza: gehienez, 20 puntu.

— Proiektuan Amurrioko udalerriaz islatzen den ezagutza: gehienez, 5 puntu.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Izangai norbanakoen zein taldekideen ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan edo mugimendu feministen arloan: gehienez, 15 puntu.

Hautaketa epaimahaiak esleipen proposamen bat egingo du egindako balorazioan oinarrituz. Proposamen horretan, hautatu den pertsona edo taldea zein den adieraziko da, bai eta erreserba eskaeren zerrenda bat ere, pertsona edo talde onuradunak bere hautagaitza baztertuz gero, hara jotzeko. Era berean, onartu ez diren eskaeren zerrenda bat aurkeztuko du, horretarako arrazoiak adierazita edo, hala badagokio, deialdia esleitu gabe adierazteko arrazoiak.

Epaimahaiaren proposamena tokiko gobernu batzarrari bidaliko zaio, eta horrek beka emateko esanbidezko ebazpena emango du edo, hala badagokio, beka esleitu gabe uzteko ebazpena.

Ebazpena zuzenean jakinaraziko zaie eskatzaile guztiei, 39/2015 Legeak 40. eta 46. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratuko da.

Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta hautaketaren emaitza osorik onartzea.

Aurkeztu diren proiektuek balorazio ona ez badute, beka hori esleitu gabe utziko dela adierazi ahal izango da.

Beka izan ez duen proiektuak Amurrioko Udalaren erregistroan jaso ahal izango dituzte egileek edo idatziz baimendutako pertsonek, epaimahaiak bere erabakia argitaratu ondorengo hamar eguneko epean.

Epaimahaiak ebatziko du arauetan aurreikusi gabe dagoen edozein egoera.

10. Pertsona onuradunaren betebeharrak

— Deialdi honetako ataletan adierazitako erabaki guztiak betetzea.

— Emandako beka onartzen dela idatziz jakinaraztea, horren jakinarazpen ofiziala jaso eta hamar eguneko epean, eta hitz ematea bekaren zenbatekoa itzuliko duela, aurreikusitako lanaren programa arrazoiren batengatik ezin izango balu garatu.

— Bekaren helburuari lotuta garatzea aurreikusitako lan programa.

— Ikerketa lana emandako beka motaren araberakoa izango da eta bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) egingo da udalerriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta eta ikerketak nahikoa hedadura duela bermatzeko.

— Amurrioko Udalean kopia bat aurkeztuko da paperean eta beste kopia bat euskarri informatikoan, horretarako ezartzen den epean. Horrez gain, epe horretan aurkeztuko da sortutako edozein material ikus-entzunezko.

— Amurrioko Udalak laguntza eman duela jasoko da lanaren argitalpenean eta lan horretaz egiten den publizitate orotan.

— Lanaren jabetza Amurrioko Udalarena izango da, eta beretzat gordeko du ikerketa lan osoa edo zati bat argitaratzeko eskubidea. Bekaren pertsona esleipendunek uko egingo diote ustiapen eskubideak jasotzeari.

— Lana argitaragabea izango da.

11. Jarraipena

Amurrioko Udalak lanaren garapenaren jarraipena egingo du hilero bilerak eginez. Amurrioko Udaleko Berdintasun Arloaren aholkularitza izango da konpondu beharreko edozein gaitarako, eta horrek, era berean, proiektua aztertzeko eta hautatzeko eratu den epaimahaiko pertsonen aholkularitza izango da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

12. Oinarriak ez betetzea eta dirua itzultzeko prozedura

Aplikatuko den araudia nola edo hala hausten bada, jasotako diru kopurua eta berandutze interesak, beka ordaindu zenetik itzultzeko erabakia hartu arte sortuak, itzultzeko eskatu ahal izango da. Dirua itzultzeko prozedura legeak xedatutakoari jarraituz egingo da.

Ez dute beka hori eskuratzerik izango administrazio zehapena edo zehapen penala izan duten pertsonek horren ondorioz, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragotzita baldin badute, eta horrelako legezko debekua dutenek, sexu bereizkeriagatiko debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

13. Araubide juridikoa

Oinarri hauek xedatzen ez duten guztiari honako legeak eta arauak aplikatuko zaizkio:

— 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.

— 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

— 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.

Amurrio, 2019ko urtarrilaren 30a

Alkatea
MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.15 06:40:27 Z